

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure negozioia markako arropa alokairuan jartzea da; gehienetan, arropa garestiak alokatzen ditugu prezio arrazoigarrietan, jendeak alokatzeko aukera izan dezan. Horretarako, Gucci, Prada, Dior, Moncler...eta beste hainbat arropa ezagun eta garestiekin harremanetan jarriko gara eta hori izango da gure erronka nagusia hau martxan jartzeko.

ekoizpenari dagokionez, gure eginkizuna ez da produktuak diseinatzea eta ekoiztea izango, baizik eta arazo bat identifikatu genuen eta hori konpontzen saiatzeko, eskaintza bat egin dugu. Horretarako, webgunea diseinatuko dugu. Baina gure negozioaren gakoa, eskainiko dugun zerbitzuan dago.

Honekin batera, jende gehiago erakartzeko eta bezeroak mantentzeko, bezero ohiko bat bada, bere iraunkortasuna bermatzeko, eskaintza bereziak bideratuko dizkiegu. Ezinbestekoa izango da gure produktua ahalik eta hobekien eskaintzea, horregatik, gure bezeroen iritzi eta kritikak jasoko ditugu. Gure ahultasunak kontuan hartuz, ziur gaude enpresa hobeago bat osatuko dugu. Horrez gain, gure sare sozialetan alokairuzko jantzi berriak ateratzen diren bakoitzean edo jantziak zozketatuko diren ekitaldi berezi bat egiten badugu, gure sare sozialetatik ohartaraziko diegu batez ere.

Arazoak baleude, webgunean bertan behe aldean eskainiko diegu bezeroei zati bat bertan gurekin harremanetan jartzeko. Hori nahikoa ez balitz, haiekin mugikorren bitartez edota emaila erabiliaz jarriko ginateke harremanetan. Hala ere, arazoa oso larria balitz, gure lokalera joateko aukera ere egongo litzake baina lehenengo online bidezko kezkak edo arazoak lehenetsiko ditugu, izan ere, edonork ezin baitu bertara gerturatu.

Enpresaren gakoa, webgunea eta online denda egoki kudeatzea eta mantentzea izango da, horretarako hainbat kanpaina egingo ditugu sustatzeko. Gainera, enpresaren arrakasta pixkanaka handitzen badoa, kolaborazioak ere egiteko proiektua martxan jarriko genuke, ezagunek gure enpresa sustatzeko eta bezeroen kantitatea handitzeko.